

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Nafarroako Gobernuaren kultura-agenda aste honetarako

Zinea, tailerrak, kontzertuak, erakusketak, haurrentzako aisiako jarduerak eta bisita gidatuak hartuko ditu

Astelehena, 2018.eko otsailak 26

Nafarroako Gobernuak jarduera berriak antolatu ditu otsailaren 26tik martxoaren 4ra bitarteko asterako.

Nafarroako Liburutegiak “Rûmî, un místico sufí para el siglo XXI” hitzaldia antolatu du, astelehenerako, eta “Kamishibai” saioa, asteazkenerako, “Ongi etorri ipuinetara” haurrentzako aisiako jardueraren barruan. Baluartek, aldiz, hitzordu bikoitza eskainiko du: biola- eta piano-emanaldia, Isabel Villanueva eta François Dumonten eskutik, asteartean, eta Calderón de la Barcaren “La dama duende” antzezlanaren eszena bat.



Calderón de la Barcaren “La dama duende” antzezlanaren eszena bat.

Zineak ondokoa ekarriko du Nafarroako Filmotekara: “Viento en las velas”, asteartean, “Antes de la revolución”, asteazkenean, “Kutxetagleak / Erronkariko almadiazainak”, ostegunean, eta “El baño / The Last Family”, ostiralean.

Tailerrei dagokienez, Nafarroako Museoak “Irisgarritasuna eta Museoak” jardunaldia antolatu du, asteazkenean; Huarte Zentroak, bestetik, jabetza intelektualaren eskubideei buruzko aholkularitzarekin, ostegunean, zein “Habitación: Siete - Zazpi” programarekin, ostiral, larunbat eta igandean jarraituko du, eta “The Sound We See” laborategia ekarriko du, Punto de Vista jaialdiaren harira.

IKIMILIKILIKLIK erakusketek jarraituko dute: JA Artzeren unibertsoa, Oteiza Museoan; El Irati S.A., Nafarroako Errege Artxibo Nagusian; Meatzariak gerran, Lizarrako Karlismoaren Museoan.

Horrez gain, Iruñeko katedraleko klaustroan egiten ari diren lanak ikusteko bisitak antolatu dira, larunbat eta igandean.

[Esteka honetan](#) duzu kultur programazio osoa: